BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4700

EBAZPENA, 2012ko urriaren 1ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, euskal kultura-ondarea zaindu, aberastu, babestu eta sustatzeko, bai eta hari eragiten dioten hirigintza-plangintzako tresnak sortu eta aldatzeko diru-laguntzak emateko dena.

Kulturako sailburuaren 2011ko abenduaren 21eko Aginduaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 246. zk., abenduaren 29koa), euskal kultura-ondarea zaindu, aberastu, babestu eta sustatzeko diru-laguntzak, bai eta hari eragiten dioten hirigintza-plangintzako tresnak sortu eta aldatzekoak, emateko araubidea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 6. artikuluak dioenez, 2012ko urtarrilaren 30ean amaitu zen.

Aginduko 9. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu eta eskabideak aztertu ondoren, laguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2012ko ekainaren 15ean, eta horrekin batera, Aginduaren 20. eta 26. artikuluen araberako balorazio-irizpideak aditzera eman zituen.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta Aginduaren 10. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren eskatzaileei bertan agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– Diru-laguntza ukatzea II. eranskinean agertzen diren pertsona eta erakundeei, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.– Ez sinatzea inongo lankidetza-hitzarmenik Kultura Sailaren eta diru-laguntza honen onuradun diren zaharberritzeko hirigintza-sozietateen artean.

Laugarrena.– Diru-laguntzak arautzen dituen aginduak ezarritako baldintzen mendean geratzen dira onuradunak, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mendean ere.

Bosgarrena.– Diruz laguntzeko jarduera guztiak amaitzeko epea 2014ko abenduaren 31n bukatuko da, agindu arautzailearen 3. artikuluarekin bat. Dena den, diruz lagundutako proiektuek 2012ko urtealdian hasi behar dute edota dagoeneko hasiak egon, eta, gainera, honako amaiera-data eduki beranduenez:

– 2012an gauzatzekoak diren proiektuak: 2012ko abenduaren 31 baino lehen.

– 2012-2013an gauzatzekoak diren proiektuak: 2013ko abenduaren 31 baino lehen.

– 2012-2014an gauzatzekoak diren proiektuak: 2014ko abenduaren 31 baino lehen.

Behin diru-laguntza emanda proiektua gauzatzeko epea ezartzen denean, epe hori luzatu ahalko da Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten

bitartez. Horretarako, erakunde interesdunak luzapena eskatu beharko du, hasieran emandako epea amaitu baino lehen. Eskabidearekin batera, luzapenerako arrazoiak justifikatzeko idatzi bat aurkeztuko du, baita nahi duen epearen proposamena ere. Nolanahi ere, epe berri horren muga 2014ko abenduaren 31 izango da.

Emandako diru-laguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, agindu arautzailearen 14. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Bidezko dokumentazioa Euskal Kultura Ondarearen Zentroan aurkeztu beharko da, 2 hilabeteko epean, lagundutako jarduera amaitzen den egunetik kontatuta, baina edozein kasutan, diruz lagunduko diren proiektuak justifikatzeko epeak honako hauek dira, gehienez ere:

– 2012an gauzatzekoak diren proiektuak: 2013ko abenduaren 28a baino lehen.

– 2012-2013 urteetan gauzatzekoak diren proiektuak: 2012an gauzatutako jarduerak, 2013ko otsailaren 28a baino lehen; 2013an gauzatutako jarduerak, 2014ko otsailaren 28a baino lehen.

– 2012-2014 urteetan gauzatzekoak diren proiektuak: 2012an gauzatutako jarduerak, 2013ko otsailaren 28a baino lehen; 2013an gauzatutako jarduerak, 2014ko otsailaren 28a baino lehen; 2014an gauzatutako jarduerak, 2015eko otsailaren 28a baino lehen.

Diruz lagundutako jardueren exekuzioa justifikatzeko, ebazpen honetan agertzen den aurrekontua hartuko da ardaztzat, eta horrekin batera aintzakotzat hartuko dira dagokion diru-kopurua eta agindu arautzailearen 14. artikuluko gainerako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu horren kargura emandako diru-laguntzak atalka ordainduko dira, prozedura honi jarraituta:

a) Lehenengo zatian, emandako diru-laguntzaren herena ordainduko da, behin 11.1 artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako kopurua ordainduko da laguntza emateko ebazpeneko 1. eranskinean adierazitako moduan, aurrez gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen berri interesdunei ematea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatuta edo, hala badagokio, Euskal Herriko agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 1a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA.- ESLEITUTAKO LAGUNTZAK

II. KAPITULUA.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTURA ONDAREA BABESTU, ABERASTU ETA SUSTATZEA

Onuraduna	Proiektua	Zenbateko diru-laguntza eman ahal zaion	Zenbateko diru-laguntza eman zaion	2012	2013	2014
Aiako Udala	Altxerriko leizearen balioa agerian jartzea.	15.000,00	15.000,00	5.000,00	5.000,00	5.000,00
Bergarako Udala	Estalkiak eta aurrealdeak erreformatzea, Bergarako Errege Mintegiko multzo monumentaleko estalkietan eta etxaurreetan dauden elementu diskordanteak eraistea.	184.439,48	184.439,48	61.479,83	61.479,83	61.479,82
Debako Udala	Debako trenbide-geltokia egokitu eta haren balioa agerian jartzea, itsasertzeko Done Jakue bideko erromes-aterpe bihurtuz.	198.049,66	198.049,66	66.016,55	66.016,55	66.016,56
Hondarribiko Udala	Hondarribiko harresiko mendebaldeko errezel-horma berritzea (2. fasea)	199.832,12	199.832,12	66.610,71	66.610,71	66.610,70
Muskizko Udala	Muskizko meatze-esparruen gaineko azterlan historiko-arkeologikoa. Amalia Vizcaina esparrua, Josefina meatzea eta La demasia osagarria.	42.500,00	42.500,00	14.166,67	14.166,67	14.166,66
Mutiloako Udala	Errotatxo izeneko errota zaintzeko eta haren balioa agerian jartzeko lanak.	137.816,00	137.816,00	45.938,67	45.938,67	45.938,66
Nabaridasko Udala	Nabaridasko Castejón Garaia izeneko aztarnategiaren balioa agerian jartzea.	217.938,50	217.938,50	72.646,17	72.646,17	72.646,16
Ortuellako Udala	Siderita kiskaltzeko labeen urbanizazio osagarria eta meazuloak (Ortuella) lehengoratzea. Egikaritze-proiektua idaztea.	29.500,00	29.500,00	9.833,33	9.833,33	9.833,34
Zanbranako Udala	Portillako multzo monumentalaren balioa agerian jartzea.	170.880,00	170.880,00	56.960,00	56.960,00	56.960,00
Zeraingo udala	Arkeologia-ikerkuntzetan agertutako elementuak zaintzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak. Aizpeko Meategia.	36.970,00	36.970,00	12.323,33	12.323,33	12.323,34

Onuraduna	Proiektua	Zenbateko diru-laguntza eman ahal zaion	Zenbateko diru-laguntza eman zaion	2012	2013	2014
Karrantza Haraneko Udala	Iparraldeko Dolomitetako azpiegiturei erabilera berriak ematea, aireko tranbiaren instalazioak berrerabili eta haien balioa agerian jartzeko. «Denboraren tunela».	192.000,00	192.000,00	64.000,00	64.000,00	64.000,00
Trapagarango Udala	Aiestaran baserria berreskuratzeko eta haren erabilera aldatzeko proiektua idazteko ordainsari teknikoak.	56.633,05	56.633,05	18.877,68	18.877,68	18.877,69
Aguraingo Kuadrilla	Arabako Lautadako baseliza monumentalak seinaleztatzea eta haien balioa agerian jartzea.	56.993,24	56.993,24	18.997,75	18.997,75	18.997,74
Eguia Cuadra, José Miguel	Cejudoko «Urrutia Dorrea» jauregia berritzea, berrerabiltzeko.	45.215,24	45.215,24	15.071,75	15.071,75	15.071,74
Arkeolan Fundazioa	Erromatar meatzeen balioa agerian jartzea. Arditurri.	116.076,00	116.076,00	38.692,00	38.692,00	38.692,00
Santa Maria Katedrala Fundazioa	Katedraldea: etorkizunean katedralaren kudeaketa garatzeko estrategia bat. Proiektu museologikoa.	200.642,40	200.642,40	66.880,80	66.880,80	66.880,80
Añanako Gatz-harana	Añanako Gatz-haraneko eremu arkeologikoaren balioa agerian jartzea.	99.977,09	99.977,09	33.325,70	33.325,70	33.325,69
Lunako Administrazio Batzarra	Artxuako Done Sebastian elizako jardun arkeologikoak.	50.991,72	50.991,72	16.997,24	16.997,24	16.997,24
Ondartez, S.L.	Done Jakue Bideko multzo monumentalari atxikitako elementuen balioa agerian jartzea. Goierriko eta Markina-Gernikako baselizak.	47.000,00	47.000,00	15.666,67	15.666,67	15.666,66
Orbela, S.L.	Arabako Done Jakue Bideari atxikitako osagaien balioa agerian jartzea: Berokiako Galtzada (Zalduondo) eta Rivabellosako Galtzada (Erribera Beitia).	31.500,00	31.500,00	10.500,00	10.500,00	10.500,00
Arantzadi Zientzia Elkartea	Done Jakue Bideko galtzadan, San Adriango (Aizkorri) tuneletik igarotzen den tartean, arkeologiako egiturak sendotzea, elementu apalgarriak ezabatzea eta bidearen balioak hedatzea.	32.290,70	32.290,70	10.763,57	10.763,57	10.763,56
II. KAPITULUA, GUZTIRA		**2.162.245,20**	**2.162.245,20**	**720.748,42**	**720.748,42**	**720.748,36**

III. KAPITULUA.- EUSKAL KULTUR ONDAREARI ERAGITEN DIOTEN HIRIGINTZA-PLANEAMENDUKO TRESNAK IDATZI ETA ALDATZEA

Onuraduna	Proiektua	Zenbateko diru-laguntza eman ahal zaion	Zenbateko diru-laguntza eman zaion	2012	2013	2014
Bermeoko Udala	Zarragoitiko Plan Berezirako azterlan historiko-arkeologikoa.	77.572,70	77.572,70	25.857,57	25.857,57	25.857,56
Oiongo Udala	Labrazako Hirigune Historikoa babesteko Plan Berezia idaztea.	71.503,98	71.503,98	23.834,66	23.834,66	23.834,66
Portugaleteko Udala	Hirigune Zaharreko Plan Berezia aldatzea, kultur ondasunaren babes-erregimenari egokitzeko.	44.850,00	44.850,00	14.950,00	14.950,00	14.950,00
III. KAPITULUA, GUZTIRA		**193.926,68**	**193.926,68**	**64.642,23**	**64.642,23**	**64.642,22**

II. ERANSKINA

ESKAERA UKATUAK.

II. KAPITULUA.– EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTUR ONDAREA BABESTU, ABERASTU ETA SUSTATZEA

1.1.– Kalifikatu gabeko eta inbentarioan jaso gabeko elementuen gaineko esku-hartzeak jasotzen dituztelako, eta haiek babesteko espedienterik ere hasi ez delako, nahiz eta aginduak hala eskatu. Horregatik guztiagatik, honako hauek ez ditugu baloratu:

– Barrikako Udala: Gure Etxea eraikina –alondegia– berritu eta haren balioa agerian jartzea.

– Berangoko Udala: Burdinazko hesia. Lehengoratzea eta memoriala eraikitzea.

– Bastidako Udala: Mugako San Andres komentuko eta inguruetako kultur paisaiaren arkeologia- eta ingurumen-balioa agerian jartzeko diziplina arteko kultur proiektua.

– Markina-Xemeingo Udala: Iturretako San Kristobal baseliza berreskuratzea.

– Ordiziako Udala: Etxezarreta 9 lokala eskuratzea (Herri Antzokia eraikineko solairuartea).

– Santurtziko Udala: Serantesko Dorre Handia babestea, gizarteratzea eta haren balioa agerian jartzea.

– Hartsuaga Uranga, Juan Ignacio: Sustraieta, ikusteko eta ikasteko eta abarretarako espazio ireki bat sortzea (Euskal Herriko mitologian eta bizimodu tradizionalean oinarritua).

– Oleada Solaguren, Onintze: Atxondoko Bolin-Bizker edo Bolunbizkar baserriaren zati bat berritzea.

1.2.– Ondare higigarria nahiz higiezina lehengoratzeko eta birgaitzeko jarduerak ez daude jasota agindu honetako 17. artikuluan diruz laguntzeko ezarritako kasuen artean; lan horiek foru-aldundien eskumen-eremuan sartzen dira (LHL, 7. artikulua).

– Elorrioko Udala: Aldapabeitia Jauregia Berrerabiltzea (ez da zehazten eraikina berrerabili egingo den eta/edo erabilera aldatu egingo zaion).

– Laudioko Udala: Goiko plaza 16 helbideko Etxebarri baserriaren fatxada nagusiaren lehengoratze arkeologikoa.

– Galarza Bilbao, José Ramón: Iurretako Zelaikoa baserriaren zati bat berreskuratzea ohiko etxebizitza gisa baliatzeko.

– Frantziskotar Klaratar Ahizpak, San Pedro Monasterioa: San Pedroko Komentuko eliza berrerabiltzeko eta egokitzeko gauzatze-proiektua idaztea.

– Gaubeako Villanuevako Administrazio Batzarra: Seberen Errotako Presa leheneratzea.

1.3.– Aginduko 17. artikuluan ezartzen diren kasuetan sartzen ez diren proiektuak izateagatik.

– Bernedoko Udala: arkeologia-gunea hirigunean gotortutako esparrua delako. Halaber, e) idatzi-zatian ez da aurreikusten ez ondasunik ez lursailik erostea.

– Kanpezuko Udala: arkeologia-gunea hirigunean gotortutako esparrua delako. Halaber, e) idatzi-zatian ez da aurreikusten ez ondasunik ez lursailik erostea.

– Eskoriatzako Udala: Indusketa arkeologikoak eurak ez dira sartzen deialdi honetako laguntzen artean.

– Urduñako Udala: ez delako kultur ondasuna edo haren ingurua desjabetzen (aginduaren 17.d artikuluak eskatzen duen moduan), baizik eta erosten. Proiektua: «Hiribilduko harresiaren ondoan, Mikel Deuna kalearen 6. zenbakian, lurzorua erostea».

– Segurako Udala: Oinarrizko babesa duen elementu bat eraisten delako, eta laguntzen deialdiak ez duelako horretarako baimenik ematen.

– Zeraingo udala: Proiektua ez da sartzen aginduaren 17. d) artikuluko kasuen artean. Gainera, ez da desjabetzea. Proiektua: Aizpeko Meatzeko multzo monumentaleko ondarea eta lur-saila erostea.

– Ekograma S.C.: Ez delako aginduaren 17. artikuluaren c) idatzi-zatiaren barruan diruz lagundu ahal den garapen informatikoa.

– Landa Garapeneko Enkarterrialde Elkartea: aginduko 17. artikuluko c) idatzi-zatian jarduera baztertutzat jotzen delako (kultur ondarearen zabalkundea).

– Geotech Gestión Espacial S.L.: Ez delako aginduaren 17. artikuluaren c) idatzi-zatiaren barruan diruz lagundu ahal den garapen informatikoa.

– Guarrochena Aramburu, Beñat: Art Working Progress proiektuarekin lotutako ikertze- eta sortze-jarduera generiko bat izateagatik.

– Matés Luque, José Manuel: Proiekturik ez aurkezteagatik.

– Verbax Comunicación, S.L. Kultura ondasunen katalogo bat eta tokiko museo bat sortzeko bideragarritasun-azterlan bat izateagatik.

1.4.– Aginduaren 20.1 artikuluan ezarritako gutxieneko puntuaziora ez iristegatik.

– Dulantziko Udala: «Euskal Herria kaleko 2. zenbakian bat ez datorren elementuaren egoera ezabatzeko jardunak.»

– Areatzako Udala. «Emukiñe kaleko 2. zenbakian dagoen higiezina birgaitzeko proiektua idaztea».

– Beasaingo Udala: «Goierrin Done Jakue bidea defendatu, aberastu, babestu eta sustatzea».

– Guardiako Udala: «Guardiako Erdi Aroko harresiko atala birgaitzea».

– Urduñako Udala: Santa Maria eliza ondoko harresiko erronda-ibilbidea eta ingurua birgaitzea (II. Fasea).

– Zeraingo udala: «Aizpeko meatzeetako trena birgaitzea eta haren balioa agerian jartzea. II. fasea».

– Quintanilla de la Riberako Administrazio Batzarra: «Doneztebeko eliza zaharraren egokitze akustikoa».

– Tecnun-Ingeniaritzako Goi Eskola: «Gipuzkoako erretaulen Inbentario historiko-artistikoa egitea eta kontserbazio-egoera aztertzea».

– Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU): «Gipuzkoako Itsas Argiak» izeneko marka-irudia sortzeko Gida-plana egitea.

III. KAPITULUA.– EUSKAL KULTUR ONDAREARI ERAGITEN DIOTEN HIRIGINTZA-PLANEAMENDUKO TRESNAK IDATZI ETA ALDATZEA

Ez direlako indarrean diren hirigintza-agirien aldaketak, edo haien garapen-tresnen aldaketak, ez eta, hirigintza-planeamenduak kultura-ondasunak babesteko araubideari egokitzearen ondorioz, nahitaez egin beharrekoak ere:

– Bergarako Udala: Errekaldeko lorategia antolatzeko proiektu teknikoa.

– Ordiziako Udala: Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idaztea.

– Segurako Udala: Segurako Arau Subsidiarioak eguneratzea.